Usurbilgo Udala

2023/12/12

TOKIKO GOBERNU BATZARRAK 2023KO ABENDUAREN 12AN GOIZEKO 9:30EAN EGINDAKO OHIKO BILKURAKO AKTA

BERTARATUAK:

Alkatea: Agurtzane Solaberrieta Mesa.

Zinegotziak: Ainhoa Arrozpide Landa, Iratxe Begiristain Otegi eta Xabat Beloki Segurola.

Idazkaria: Xabin Juaristi Arrieta.

Ez da bertaratu: Joxe Mari Lizaso Azkonobieta.

1.- 2023KO AZAROAREN 28KO BILKURAKO AKTA ONARTZEA.

Batzarkideek 2023ko azaroaren 28ko bilkurako akta aho batez onartu dute.

2.- HAAS-TAKO A-81 (ZUBIETAKO KASKOA) EREMUKO HEU 81.5 EXEKUZIO UNITATEAN ERAIKITAKO BIZITZA BAKARREKO ETXEAREN (IRIGOIEN KALEA 14) LEHEN ERABILERA BAIMENA EMATEA (2018OHAN0016).

Esp. Zenbakia: HZ.04/2018-0436
2018-OHAN-0016

MIKEL URDIAIN SOTIL jaunaren ordezkaritzan diharduen Amaia Arana Corral arkitektoak, Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako A-81 (Zubietako kaskoa) Eremuko HEU 81.5 Exekuzio Unitatean eraikitako bizitza bakarreko etxearen (Irigoien kalea 14) lehen erabilera baimena eta hondakinen kudeaketarako jarritako fidantza bueltatzea eskatu du.

AURREKARIAK – ERAIKITZEKO BAIMENA

Tokiko Gobernu Batzarrak, 2021eko urtarrilaren 25ean, zera erabaki zuen: MIKEL URDIAIN SOTIL jaunari, Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako A-81 (Zubietako kaskoa) Eremuko HEU 81.5 Exekuzio Unitatean bizitza bakarreko etxea eraikitzeko udal baimena ematea.

OBRAREN EZAUGARRIAK	
Exekuzio materialeko aurrekontua:	654.765,21 €
Obra amaierako ziurtagiria:	**1.065.197,74 €**
Obrari dagozkion hobariak:	Indarrean diren Ordenantza Fiskalen araberako hobariak ez dira aplikagarriak.

Hondakinen Kudeaketarako Azterlana:	Aurrekontua: 1.629,55 €
	Fidantza (%120): **1.955,46 €**

LEHEN ERABILERA BAIMENA

Orain berriz, MIKEL URDIAIN SOTIL jaunaren ordezkaritzan diharduen Amaia Arana Corral arkitektoak, obra amaierako dokumentazioa aurkeztearekin batera, eraikitako bizitza bakarreko etxearen lehen erabilera baimena eta hondakinen kudeaketarako jarritako fidantza bueltatzea eskatu du.

TXOSTEN TEKNIKOA

Udal arkitektoak, Amaia Illarreta Izeta andereak, aurkeztutako dokumentazioa aztertu ostean, 2023ko azaroaren 23an, lehen erabilera baimen eskaerari ALDEKO txostena emateaz gain, hondakinen kudeaketarako ezarritako fidantza bueltatzea proposatu du.

Gauzak horrela, txosten teknikoa irakurri ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

E R A B A K I A

LEHENDABIZI*:* Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako A-81 (Zubietako kaskoa) Eremuko HEU 81.5 Exekuzio Unitatean eraikitako bizitza bakarreko etxearen (Irigoien kalea 14) lehen erabilera baimena baimena ematea.

BIGARRENA: Hondakinen Kudeaketa egokia bermatzeko 2021eko martxoaren 2an ezarritako 1.955,46 €-tako fidantza (IE 15-2021) itzultzeko agintzea kontuhartzailetzari honako kontu zenbakian: ES24 3008 0148 6107 2037 3315.

HIRUGARRENA: Erabakia errenta teknikariari jakinaraztea, zergen kitapena egin dezan.

LAUGARRENA: Erabakia diruzainari jakinaraztea, Hondakinen Kudeaketa egokia bermatzeko fidantza itzul dezan.

BOSGARRENA: Erabaki hau interesatuei, udal erroldako arduradunari, ur zerbitzuaren ordainketa-erroldaren arduradunari, Errenta eta Ondare Teknikaria, Kontuhartzaileari ematea.

3.- 2023RAKO ENPLEGU PUBLIKORAKO ESKAINTZA ONARTZEA (2023ID060063).

IKUSIRIK

2022ko abenduaren 22an Udalbatzak onartu zituen 2023ko Lanpostuen zerrenda eta Plantilla Organikoaren aldaketak. 2023ko urtarrilaren 18an Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ziren.

Usurbilgo Udala

2023/12/12

Ondoren 2023ko martxoaren 30ean Udalbatzak 2023ko Lanpostuen Zerreda eta Plantilla Organikoaren aldaketak onartu zituen eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean 2023ko apirilaren 24ean eta maiatzaren 31ean argitaratu ziren.

KONTUAN HARTURIK

Urriaren 30eko 5/2015 Errege Dekretu Legegileak, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Testu Bategineko 70. artikuluak eta Euskal Enplegu Publikoari buruzko abenduaren 1eko 11/2022 Legearen 52. artikuluak dioena.

Estatuko 2023. urteko aurrekontu orokorrei buruzko abenduaren 23ko 31/2022 legearen 20. artikulua.

Alkatetzaren 2023/1089 zenbakidun Dekretuan Enplegu Publikoaren eskaintza onartzeko ezarritako eskuduntzen egikaritzan, Tokiko Gobernu Batzarrari eginiko lagapena.

Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

E R A B A K I A

LEHENENGOA.- 2023ko Enplegu Publikorako Eskaintza onartzea, akordio honekin batera I. Eranskin gisa doan dokumentuan azaltzen den plaza jasotzen duena.

BIGARRENGOA.- 2023ko Enplegu Publikorako Eskaintza Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian laburpen bat argitaratzea.

I. ERANSKINA

2023 urteko Enplegu Publikorako Eskaintzan jasotako lanpostuak honakoak dira:

Sailkapen taldea	Eskala	Azpieskala	Izena	Hizkuntza eskakizuna	Kopurua	Txanda	Lanaldia
E	AB	ZB	Garbitzailea	1	1	Irekia	%100
A1	AB	ZB	Administrazio elektroniko eta informatika sistemen Teknikaria	4	1	Irekia	%100
C1	AO	AA	Administraria (ongizate)	3	1	Irekia	%100

Eztabaidarako gaiak amaiturik, alkateak batzarraldia bukatutzat eman du, goizeko 10:00k direnean. Eta aztertutakoa eta erabakitakoa jasota gera dadin akta hau jaso da, alkateak izenpetuz eta nik, idazkariak, ziurtatuz.